

## ARRANTZALIA.

---

Jayo orduko itsas aldera  
 dijua lagunarekiñ,  
 jostatutzera chalupetako  
 arraun aundiayarekiñ;  
 bertatikan da arrantzan asten  
 lokarri churi batekiñ,  
 zeñen gaztetik arrantzarako  
 griña dakin berekiñ!

Ikusten badu aita beria  
 nola kanpora dijuan,  
 eldurik diyo—¡Aita! nik ere  
 berorrekin nai det gaur juan,  
 emen ez detnik deus arrapatzan,  
 ikusi nai det kanpuan  
 arrai aundiayak nola achitzen  
 dituzten beok amuan.

Aitak diyo—Ez, beste batian  
 etorriko aiz gurekiñ,  
 oraindikanen gaztea ago  
 geldi ari amarekiñ;  
 ¿zér uste dek ik, jostatutzera  
 guazela urarekiñ?  
 ikaratuko intzake anglo  
 baga guztiz aundiayakiñ.

—Ez naute, aita, ikaratuko  
 baga ta ur audi oiek,  
 ikara nairik esaten dizkit  
 igartzen diyot neronek;  
 —¿Negarrez ago? zér gertatzen zaik?  
 esan zak bada prest, zérde?  
 —Nik berorrekiñ gaur joan nai eta  
 eraman nai ez berorrek.

—Isillik ago, ator, salta zak,  
 eta or eseri ari,  
 eldu akiyok bi eskuakiñ  
 sendo alki agonari;  
 ez ariyen or chorabiyatu  
 eta urtara erori.  
 —Aita, nigatik ez ikaratu  
 aspaldi dakit igari.

Utzirik ama eta portua  
 arraunian joan dira,  
 au duLenbiziko irteera  
 itsaso zabal aundira;  
 ariturikan an arrantzean  
 ta gero emanik jira,  
 badatoz beren kabi-chulora,  
 badatoz beren errira.

Onez aurrera ez du iñori  
ezer esan bearrikan,  
aitari ere deus galde gabe  
an da denen aurretikan;  
beste guztiyen zai egoten da  
bertan bakar bakarrikan.  
¡Ain borondatez ara sartu ta  
zeñek atera andikan!

¡Orra bestiak bezela nola  
egin dan lanian gizon,  
ez da atzera begira egon  
ez du denborarik ichon;  
lan gogorhua izanagatik  
arek arkitzen du chit on,  
etzayo bada iruritutzen  
lan oberik dala iñon.

Ala munduko egun geyenak  
ditu nekian pasatzen,  
ontatik baitu gurasoaren  
ogiya irabazitzen,  
beiñ edo beste kanpora gabe  
erriyan bada gelditzen  
biotz erdian gauz char bat balu  
bezela du ark sentitzen.

Eta ¿nola ez, uren ertzean  
sortua badamundura?  
beste gauzarik etzayo bida  
jayotzen ari burura;  
ate chikiyak jayo orduko  
maite duten gisan ura,  
modu berian onek maitatzen  
du itsaso aundi ura.

JOSÉ ARTOLA TA ELIZECHEA.

